

# «Musikagilearen lana ez da batere baloratzen»

Intercontemporain Ensemblek edo Pariseko orkestrak Isabel Urrutiaren lanak antzoki garrantzitsuenetara eramán dituzte

## ELKARRIZKETA

FELIX GERENABARRENA

Isabel Urrutia musikagile bizkaitarrak lan interesgarria du dagoeneko egina, bai kopuruz bai kalitatez. Bere kreazioak nazioartean estreinatuta izan dira. Intercontemporain Ensemblek edo Pariseko orkestrak eramán dituzte bere konposizioak paperetik antzoki garrantzitsuenetara. 2010. urtean, Urrutiaren 'Sei' obra aukeratu izan zen Unesco-ko Konpositoreen Nazioarteko Tribunal eta Poloniako 'Grazyna Bacewicz' Nazioarteko Konposizio Lehiaketaren lehenengo saria lortu zuen, 2012an. Musika nola bizi duen kontatzeko elkarrizketatu dugu.

**- Musika ikasten hasten diren gazteek instrumentu bat aukeratzeko dute. Noiz konturatu zinen zure bokazioa musika idaztea zela?**

- Txikia nintzenean, soinuak sortzea asko gustatzen zitzaidala gogoratzen dut. Askotan jolasten nintzen soinuak egiten zuten jostailuekin. Pianoa jotzen hasi nintzen eta gero harmonia ikasten. Berehala deskubritu nuen musika idaztea oso interesgarria zela. Musika idazteko ikasgai guztiak egin nituen (harmonia, kontrapuntua, konposizioa...). Nire desira eta gogoia errealitate bihurtzen joan ziren astiro-astiro eta musikagile bihurtu nintzen, baina ez zen izan bat-bateko erabaki bat, prozesu luze baten ondorioa baizik.

**- Ba al duzue musikagileok merezi duzuen errekonozimendua gizaratean?**

- Ez, batere ez. Zergatik? Nire ustez, gure lanak balio eko-

nomikorik ez daukalako gizaratearentzako. Gaur egungo partitura batek ez dauka salneurrik, koadro batek edo eskultura batek daukaten bezala. Gure partiturak eta diskoak oso gutxitan saltzen dira (munduan oso ezagunak diren musikagileenak barne), eta gainera, Interneten bidez dohainik lortu ahal dira oso erraz. Gure musikaren munduan dirurik ez dagoenez, gure lana ez da baloratzen ezta musika-lana egitearen zailtasuna ere.

**- Zure musikan zein pisu erlatibo dute tradizioak eta abangoardiak?**

- Gaur egun tradizioa eta abangoardia ez dira existitzen. Lehen abangoardia zena tradizio bihurtu da. Estetika berriak, eskola desberdinak eta abangoardia berriak ez dira existitzen. Mugak ez daude argi. Estetika desberdinak baino, estilo desberdinak daudela esango nuke.

**- Beste tentsio garrantzitsuetako bat esperientzia pertsonalaren (subjektibotasunaren) eta mugimendu orokorren (ideologiak, teoria musikalak, sortzaileen taldeak) artekoa da. Nola bizi duzu zuk tentsio hori?**

- Nik ez dut tentsio hori bizi. Ni neu ez naiz bereziki identifikatzen sortzaileen talde zehatz batekin, ezta teoria musikal zehatz batekin ere.

**- Saritua izan zara erbesteetan. Zure musika ulertzeko modua berdina al da hemen eta kanpoan? Alderik bada-go?**

- Gaur egun, globalizazioa dela eta, musika garaikidea

**«Gaur egun, eskola edo tendentzia argirik ez dago XX. mendean gertatzen zen bezala»**

entzuten duen publikoaren kultura nahiko homogeneoa dela esango nuke. Publiko antzekoa da mendebaldeko gizarte guztietan eta ekialdeko gizarte batzuetan (Japonia, Taiwan, Korea...). Horietan guztietan entzuteko era nahiko berdina dela uste dut. Lan batek estiloaren koherentzia, garapen tekniko landua eta originaltasuna baldin badauzka, edozein herri-tako publikoak preziatuko du. Hala uste dut nik behintzat.

**- Azken urteetan, emakume musikagile asko nabarmendu dira. Uste duzu garrantzitsua dela musikarentzat edo kasualitate hutsa da?**

- Zorionez, ez bakarrik musika arloan, beste arlo batzuetan ere, emakumearen presentzia gero eta handiago da. Argi daukat hori guztiz positiboa, garrantzitsua eta beharrezkoa dela bizi garen gizaratean, berdintasunari eta garapen pertsonalari begira. Inteligentzia, talentua eta originaltasuna, hau da, pertsonak dauzkan ahalmen intelektualak ez dira genero kontuak.

**- Garai batean, musikagile gehienak mugimendu batean koka zitezkeen: barrokoan, klasizismoan, erromantizismoan. Ordea, ematen du musika garaikidea sakabanatuago dagoela. Horrela da edo badaude ideia nagusi batzuk orokortasuna ematen diotenak?**

- Gaur egun, eskola edo tendentzia argirik ez dago XX. mendean gertatzen zen bezala (dodekafonismoa, serialismoa, postserialismoa, musika espektrala, musika elektronikoa...). Ez dago eskola nagusi bat, norabide nagusia markatzen duena, lehenaldian bezala. Ez dago norabide argirik, eskola edo tendentzia zehatzik.

**- Beethovenen eta Brahmsen garaian kontzertuetan jotzen ziren lan gehienak berriak izaten ziren. Pekka Salonen zuzendariak aipatu izan du orain egiten**



Musika nola bizi duen kontatzeko elkarrizketatu dugu Urrutia. :: EL CORREO

**den musika klasiko gehiena bertsio hutsez ('covers') osatuta dagoela. Egoera horren larria dela uste al duzu?**

- Ez dakit zergatik esaten duen hori, zein bertsiori buruz hitz egiten duen. Nola nahi ere, ez dut uste gaur egungo sormena aurreko beste zer edo zeren bertsio denik. Nire kasuan, saiatzen naiz nire lanak originalak izan daitezkeen, beste musikariren lanetatik desberdinak. Nire lan baten bertsioa egin dezaket, jakina, baina ez nuke inoiz egingo beste musikagile baten lan baten bertsioa. Norberaren lana bere propietatea dela eta sakratua dela sentitzen dut.

**- Zein eragin dauka teknologiak zure musikan?**

- Eragin handia. Nahiz eta nire lan gehienak akustikoak izan (ganbara musika, orkestrarako musika, esaterako), ordenagailuarekin garatutako musikaren eragina daukate. Zera da, zelan garatzen den musika, teknologia dela eta, kontuan hartzen dut konposatzean: tinbrearen garapena, erresonantzien garapena, polifonien multiplizitatea eta abar. Konposatzean erabiltzen ditudan teknika horiek teknologiak eskaintzen dizkigun aurrerapenekin lotuta daude.

**- Azkenik, Feldmanek soinu bera nahi izan zuen azpimarratu, soinuaz kanpo den ezeri erreferentzia egin gabe. Zure lanetan nola lantzen duzu harreman hori?**

- Soinuak, berak bakarrik, ez dauka esanahirik. Organizazio kontestu baten barruan sartu behar dugu. Soinua, berez, bada materiala musikagileak osoki landu behar duena. Batzuetan, irudi batzuk, bizi diren esperientziak, pentsamenduak... ideia musikalak izateko balio dezakete. Nire lanak konposatzeko, gehienetan, ideia musikal hutsak hartzen ditut soinuaz kanpoko erreferentziarik behar izan gabe.

Musika, hizkuntza abstraktu baten moduan sentitzen dut. Hori bai, musikagileak bere sentimenduak, emozioak eta nortasuna islatzen du bere lanetan, nahita ez.